

Irène Némirovsky

BIRJINAK

NARRAZIOAK

ALBERDANIA



A black and white portrait of Irène Némirovsky, a woman with dark, wavy hair, looking directly at the camera with a neutral expression. She is wearing a dark, textured garment, possibly a fur collar.

Irène Némirovsky

BIRJINAK

NARRAZIOAK

ALBERDANIA





*Bitartean ibillico dira becatutic becatúra amilduaz; oraiñ pensamentu batean, guero seago itz
loyak gozotero aditzean: oraiñ escuca,
edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:
oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzán,
edo dantzá ondoan alberdanián.*

J.B. AGIRRE

JATORRIZKO IZENBURUA: Les vierges et autres nouvelles

Lehen argitaraldia **ALBERDANIA**-narrazioan: 2011ko azaroan

© 2009, Éditions Denoël

© Itzulpenarena: 2011, Joxe Antonio Sarasola

© Argitaraldi honena: 2011, **ALBERDANIA,SL**

Istillaga, 2, beheka C - 20304 Irun

Tel.: 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Azala: Antton Olariaga

Azaleko argazkia: Harlingue/Violet

ISBN digitala: 978-84-9868-657-9

ISBN papera: 978-84-9868-326-4

Legezko gordailua: ss. 1550/11



BIRJINAK

Eta beste kontakizun batzuk

IRÈNE NÉMIROVSKY

ITZULTZAILEA

Joxe Antonio Sarasola

ALBERDANIA

narrazioak

ZINE MINTZATUA

BERBARO NAHASI eta sorra entzuten da, bat-batean puztuz eta hurbilduz datorrena, itsasoko olatuak bezala. Euria ari du. Eraikin garaiak itzal eta lanbro artean murgildurik ageri dira; automobil izugarri handi baten faroak gandua zulatuz igaro dira; espaloi bustiek eta Operaren teilatua euritan distiratzen dute ispilu goibelak irudi. Paris da, martxoko azken egunetan, ilunabarrean. Argiak ziztuan pasatzen dira batera eta bestera eta ez da ezer bereizten suzko izpi sorten zaparrada besterik. Gero hitzak, beti berberak, sortzen, hurbiltzen eta orro bihurtzeraino ozentzen dira; dardarka iristen dira euria zeharkatuz. Barra, Hotela, Dantzalekua. Klaxonen orroak baretzen diren bezain laster, kalea beltz agertzen da, hutsik, bustita. Letrak goitik behera piztu eta itzali dabilta. Willy's Bar. Ateak haizegailuaren burrunba egiten du jiratzean. Aretoa, txikia eta sakona, ispiluz apaindua dago, eta belusezko sofaz eta mahaiz altzariztatua. Aretoaren erdian, taburete batean eserita, beltz bat sordinaz jotzen ari da. Euri hotsa entzuten da atea zabaltzen den bakoitzean eta, betiere, banjoaren kirrinka ahula; beltzak txistuka dihardu, ezpainak estututa, ia entzuten ez zaiola, burua alde batera makurtuta, zerbaiti adi dagoen txoria bezala. Laurak jo dute. Barraren atzean, jabea egunkaria irakurtzen dago, erdi lotan. Hainbat emakume daude tabureteetan eserita. Etsimena nabari dute aurpegian, nahigabea, aspertasuna. Batzuk erdi lo daude, izter-arteak agerian, zigarroa hortzetan dutela.

Emakume lodi titihandi bat, gizonezkoentzat egina dirudien jakadun trajea estu-estu geratzen zaiola, lepoaizun gogorra, zigarroa ezpainetan, trikotatzen ari da buru-belarri. Emakume txiki batek, taburetearen gainera igota, cocktail bat zurrupatzen duen bitartean, atzaparrekin eusten dio bere perlazko idunekoari, txakurkume baldar batek aurreko hankekin butakaren xingolei heltzen dien bezalaxe. Beste emakume gazte bat dadoetan jokatzen ari da barmanarekin. Beste bat, iharra, bizkar makurra, eztulka dago. Dena lasai, dena isilik. Familia-ostatu bat balitz bezala. Emakume nano bat, lorez apainduriko kapela

handi batek bere ilaje margula estaltzen diola, iduneko soil arlote batekin, jarrera limurtzailean ageri da. Bat-batean entzun da: “Kaka! Sarah andrea”. Andrea bi neska gazte-gazteren artean eseri da, poltsa mahai gainean utzi eta nesketako bati zuzendu zaio sorgin aurpegiarekin:

–Ez badakizu ere, neskato, ez da izan batere jatorra, ez da izan batere serioa zure portaera... Neuk aurkitu dizut, Jainkoak daki zenbat kostata, goitik beherainoko jaun bat, jaun aberats bat, adinekoa, errespetagarria, eta zuk itxaroten eduki duzu nire etxean arratsalde guztian. Jakin liteke zer dela eta jokabide hori?...

Neskak, oso gaztea, ukabilaren tamainako aurpegia, ardiarenak bezalako begi luze hezeak, ahapeka erantzun dio:

–Hinguingarriegia iruditu zait hau ere...

–Aizu, txiki, hau egin badut zuri laguntzarren izan da, badakizu, ezta? Baina zuk zor didazuna ordaintzeko beste moduren bat aurkitu baduzu...

–Lasai, itzuliko dizut zeure dirua...

–Oiloak pixa egiten duenean? Hor konpon, zure lagunarekin hitz egingo dut...

Neska ikaratu egin da; burua makurtuz, ahapeka diotso:

–Ez, ez, joango naiz, baina...

–Ondo dago, egizu gogoak ematen dizuna. Zer inporta dit niri?

Neska bat hurbildu zaie.

–E, Sarah andrea! Zenbat balio du honek? Erosiko didazu? Baina segituan behar dut dirua.

–Segituan, segituan... Horixe esaten didate denek ere...

Besteak eskaintzen dion eraztuna hartu du, arnasa bota dio distirarazteko eta adi-adi aztertu du bitxia sudurraren kontra jarrita.

Éliane sartu da. Soingaineko beltza dauka, kapela beltza, apaindurarik gabea; euritakoa dakar eskuan. Ezaxola, utzikeria, apatia, zabarkeria nabaritzen zaio, ohea utzi berri duenaren usaina dario. Eskuetan hartu du kapela, mahai gainera jaurti du, gero hazka egin du bere ile horail laburren artean, eseri eta keinu egin dio barmanari. Hura koktelera astintzen ari da.

–Dena ondo, Éliane andrea?...

Baietz erantzun dio buruarekin. Perlazko iduneko eder bat dauka, lepoaren inguruan bi buelta ematen dizkiona. Adeitasun berezi batez agurtzen dute, begirunez.

–Ondo dabilta gauzak? Dena zeuk nahi bezala, Éliane andrea?

Irribarre egiten die, ezpainetan zimur edo tolesdura txiki bat eratuz. Masaila eskuan bermatu du, beltzari adi jarri da. Bostak jo dute. Kortesanak, denak batera, tente jarri dira, aurpegia hautsezatu dute. Traje estuko emakume lodiak berehalaxe ezkutatu du bere trikota eta monokulua jarri du. Begirada guztiak atera zuzendu dira, gutziatsu eta larri. Baina han agertu diren bakarrak emakume batzuk izan dira eta bakoitza bere lekuan esertzera joan da, saltzaileak beren salmahaiaren atzean esertzen diren bezalaxe. Nanao zutitu egin da. Élianeren paretik pasatzerakoan gelditu egin da, perlen edertasunak liluratuta. Pausotxo laburrak emanaz hurbildu zaio, nahiko lanarekin igo da Élianeren aurrean dagoen taburetera eta zintzilik daukan idunekoari heldu dio; ahora eraman eta hortzetan estutu du perletako bat. Inguruan barre hotsak entzuten dira. Élianek bere idunekoa ferekatzen du, begiak erdi itxita. Nanaoak buruari eragin dio miresmenez.

–Inoiz hau saltzea pentsatzen baduzu, akordatu nirekin. Ezagutzen dut erosiko lizukeen norbait...

Élianek mugimendu zakar batez idunekoa erauzi eta bizkarra eman dio. Nanao taburetetik lurrera jaitsi eta kalera irten da. Beiran zehar ikusten dugu nola elkartzen den gas farola baten azpian geldi dagoen beste emakume batekin, izaki beldurgarri bat, begirada finkoa eta hilotzaren hortz luzeak dituen. Biak ere eurlan murgildu eta gau beltzean desagertu dira. Dadoetan jokatzeko ari zen txikia Élianerengana hurbildu eta idunekoari begira jarri da, bai eta edaten zuen bitartean bere perlazko idunekoa haztatzen zuen beste emakumea ere. Elkarren ondo-ondoan daude. Élianek adi begiratu die eta, haren begiradapean, aurpegi biak une batez desitxuratu bezala egin dira, zimurtu, atso zahar miserableen maskara gosekil bihurtu dira. Élianek bere idunekoa bortizki oratu eta eskuan estutu du. Irudia desagertu egin da. Edaten duen bitartean, beste eskuarekin perlak mahai gainera isurtzen ditu, haien bitartez begiratuko balu bezala ematen du. Gizon zantzu batzuk agertu dira segundo batez; hasieran arruntak, edonor, irribarretsu, bat-batean bihurtu eta keinuka dihardute plazeraren nekearen pean; gero,

amesgaizto eta zorameneko irudi bilakatu dira. Bat bereziki, bizar zuriko gizon bati dagokiona, lasaia, ohoragarria, behin eta berriro agertzen da, aldi bakoitzean aurrekoan baino beldurgarriago, izugarrizko ahotzar bigun bat musu emateko keinuan luzatzen duela. Barreiatu dira irudiak. Idunekoa ibai distiratsu bat bailitzan lerratzen da eta bertan islatzen dira etxe zuri baten irudia, lorategi zabal batena, Élianerena berarena, zaharra, gona beltz baten barrenarekin kalea garbituz doala; neska gazte baten besoan bermatzen da. Etorkizuna... Élianeri barregura eman dio bere ametsak. Neska gaztearen profil bat, garbia eta serioa, liburu baten gainera makurturik dago, zoriona eta bakea adierazten dituen espresioarekin. Musika beltza, gero eta ozenago eta basatiagoa, bat-batean, kanpai dangek eta organo musikak ito dute; une batez borrokatu da gailentzearen, baina laster erabat isildu da. Kanpaiak bakarrik entzuten dira orain, baina dangak gero eta motelagoak dira, gero eta ahulagoak. Herri txiki bateko eliza da, meza ondoren.

Plazaxka goibela, grisa. Automobil bat igaro da burrunban; zarata haziz joan da aurrena, gero ezabatu egin da; harrotu duen hautsa astiro-astiro pausatu da berriro, eta uxatuta txioka hegatu diren txoriak, berriro itzuli dira eta lurtean mokoka dabilta lasai. Ume ahotsak. Piano bat esku moldakaitz batzuek joa; bals zahar bat, gune zailago batera heldu orduko eteten dena, baina pazientzia guztiarekin berriro ekiten dio, zailtasun gunera heltzean berriz ere eteteko, eta horrela amaigabeki. Igartzen da emakumeak orduak eta orduak ematen dituela jotzen. Erretore jauna elizatik irten da eta plaza zeharkatu du harrien gainean lerratuz doan katuaren fereka leunaz. Neskazaharrak mantupean etxera bueltan datoz, eskuak otoizteko jarreran, jaunartu berri duenaren espresio hertsia eta azukretuarekin. Eta plazan ate bat irekitzen eta ixten den bakoitzean aldaba hots bat entzuten da, hots dardarkaria, larria, eternitate guztirako deika ari balitz bezala.

Beltzez jantziriko emakume bat, konkorr samarra, eta neska gazte bat izan dira irteten azkenak. Agurtzen dituzte, baina urrundik, ia disimuluz bezala, ezpainak estutuz, eta igarotzen diren bezain laster, badirudi zurrumurruzko arrasto bat sortzen dela haien atzean. Begiradekin jarraitzen diete, buruari eraginez; gero, sakabanatu egin dira denak, eta katu batek zeharkatu du eliz ataria, astiro, hankak

harlauza zaharren gainean ia pausatu ere egin gabe. Orain plaza hutsik dago, ez da inor ageri begi bistan. Kontraleiho erdi itxietan zehar, oso argi ez bada ere, begiztatzen dira mahai atonduak, haur aurpegiak, uniformedun neskameak okela errea zerbitzatzen, gizonak mauka hutsean, ezpainzapiaren mutur bat txalekoan sartuta, platera eta mahai tresnek elkar jotzean egiten duten zaratatxo igandetarra bals etenkorrearekin nahasten da, azpimarratu egiten du, akonpainamendua egiten dio.

Emakume zaharra eta neska gaztea denda txiki batean sartu dira, erdi mertzeria, erdi irakur gela. Txirrinaren hots zorrotza. Denda atzera joan dira. Horman, markodun argazki batean, bibote sarri eta beltzeko gizon lodi bat ageri da, zurezko panpinaren irribarrea daukan emakume ezkonberri bati besoa eskainiz eta zertxobait aparte mantenduz. Beste argazki batzuk. Komunio txikia egin duen neskato bat belaunaulki batean belauniko, mutil bat soldadu uniformearekin. Mahaiaren parean zintzilik dagoen portzelanazko lanpara piztu du atsoak. Gas txorrota ziztuka irten da, neskatoa argituz. Hamasei urte dauzka. Neurrira eginiko traje zaharkitu horietako bat dauka: jaka gerrian estua eta behealdean harroa, gona orkatila baino goraxeago heltzen zaiola, botin baldar takoi gabeak eta kanpai formako kapela izugarri handi bat krespoi batez apaindua. Adatsa argia, luzea, leuna dauka, eta, kapela kentzen duenean ikusten da antigoaleko eran orraztua daukala, buru gainean xingola zabal eta beltz batez lotuta. Kontu handiz erantzi ditu bere harizko eskuzorroak, tolestu eta kaxoi batean gorde ditu bere meza liburuarekin batera. Polita da. Aurpegitxo zurbil eta gogorra, ezpainak estu eta ertzetan zertxobait eroriak. Ametsetan dirudienez, atsoak deitu egin dio: “Anne!”. Ustekabean harrapaturik, sukaldera doa eta plater batekin itzuli da; mahaira eseri dira biak. Isilik ari dira; sardexken txilin hotsa bestetik ez da entzuten. Txirrina jo dute. Berrero: “Anne!”. Bezeroak dira. Emakume oso lodi eta inportante bat, beltzez jantzia, eta bi neskaxa; Anne ikustean, amak ez dirudi gehiegi fidatzen denik eta honela dio:

–Zoaz izebaren bila, mesedez.

Bi neskaxek elkarri ukondokada bat emanaz, barre txiki maltzurak egin dituzte. Baina jadanik, izeba agertu da denda atzetik eta Anne barrura bidali du. Astiro-astiro, Anne badoa. Baina, beirazko atean

zehir, begirada mingotsez ikusten du nola ari zaion emakume lodia ahapeka hizketan bere izebari, ikusten ditu bien aurpegi gozakaitz eta suntsituak. Bezeroa salmahaiaren aurrean eseri da eta trikotatzeko hari batzuk aukeratu ditu. Bitarte horretan, erregimentu batek zeharkatu du plaza. Bi neskatxek irrikaz luzatu dute lepoa, baina leiho zabaldurantz pauso bat ematera ausartu gabe. Soldaduek, paretik igaro ahala, begi keinu bat, irribarre bat egiten diete neskatxei, eta haiek begiak jaisten dituzte, haserre-aurpegia jarri eta muzin egiten diete. Anne begira dago. Bezeroek azkenean alde egin dute. Musika militarra, urrunduz, aienatu egin da.

–Anne.

Anne mahaia jaso eta harrikoa egitera doa.

Izeba gutun bat idazten ari da. Berriro, ateko txirrina joka hasi da. Oraingoan izeba bera doa bezeroaz arduratzera. Emakume zahar-zahar bat da morroi izugarri handi bati besotik helduta. Anne, platerak igurzteari utzi gabe, mahai gainean ahaztuta geratu den gutunari begira dago; pausotxo laburrak emanez hurbildu eta hauxe irakurri du:

Abizpa maitea,

Jaso nuen Anneren pentsioa. Baina eskertuko nizuke datorren hilean berrehun libera gehiago bidaliko bazenizkit. Gure neskatxo maiteak soineko berri bat erostea nahi du. Normala da daukan adinarekin pinpirin samarra izatea. Gainera, asko irteten da, izan ere guk hiriko goren mailako familiekin tratatzen dugu eta...

Denda txikian, emakume zaharra, astunki, zutitu egin da. Annek, esku dardartiz, gutun azalari buelta eman eta helbidea irakurri du: *Madame Éliane Bernard, 30, rue de Châteaudun, Paris*. Harrikora itzuli da. Izebak eseri eta gutuna idazten jarraitu du ilobari bizkarra erakutsiz, Annek ukabila jasota gorrotozko imintzioak egiten dizkion bitartean. Gerorako, leihoaren aurrean eseri da, masaila eskuan bermaturik duela. Plaza hutsera, zeru hutsera begira dago. Astiro-astiro, zutitu eta denda hutsera itzuli da eta, hango erdi ilunpetan haztaka, atzamarrak lerratu ditu ezpainen gainean eta azal zatitxo bat erauzi du; gero, bere gelara itzuli da eta irakurtzen hasi da irrikaz eta beldurrez. Izenburua tintaz idatzia dago liburua babesteko paperezko azalean: *A. Dumas semea, Kameliadun dama*. Irakurtzen ari den bitartean, emakume dotoreak eta gizaseme ederrak imajinatzen ditu parke batean. Zuhaitzen gerizpean atondurik mahai bat dago; haizeak kandela-argiak

dardaratzen ditu. Hostoen firi-fara eta iturriko uraren murmurioa entzuten dira. Gero xanpain botilen kortxoak eztanda eginez disparatu dituzte eta edalontziak edari apartsuz bete. Ijitoak musika jotzen ari dira zuhaitzen azpian, eta ilargiaren argiak, adarren artetik igaroz, biolinen zurezko kaxan distirutzen du. Annek liburua erortzen utzi du. Adi begiratu du leihora, plaza hutsera. Ilunabarra da, eta herri txikiak are itogarriago, are miserableago ematen du orain. Nonbait, biraderadun organotxo batek biolinen doinu berbera errepikatu du, gero isildu egin da. Txanpon handi batzuek lurrera erortzean egiten duten hotsa entzuten da. Annek eskuak bihurritu ditu isilik, asperdura eta etsipen aurpegiaz.

Gaua hutsa eta mugagabea da. Hodeiek, igaro ahala, deformatu eta hainbat silueta zehazgabe eratzen dituzte: itsasontzi handiak, trenak, emakume makurtuak, perla distiratsuak eta, azkenik, emakume buru bat adats guztia solte duela, zintzilik.

Anne irakurtzen ari den bitartean, atzean, pauso batzuen kirrinka entzun da zoruko oholetan. Salto batean zutiturik, mugimendu izu eta ez oso trebe bat egin du liburua ezkutatzeko, baina lurrera erori zaio. Izebak, zalaparta batean, liburua jaso eta, ahots txistukariz errietan ekin dio:

–*Kameliadun dama!* Biziotsu txiki hori! Eta ez da batere harritzekoa! Zure ama ez da emagaldtu bat besterik! Hark bezalaxe amaituko duzu zeuk ere!

Bat-batean, Anne aurrera oldartu da ukabila jasota. Izebak errenditu du, besotik helduz. Biak aurrez aurre daude begietara begira, amorruez beterik. Annek oihuka ekin dio:

–Gorroto zaitut! Gorroto zaitut! Inbidia diozu amari zarelako itsusia, zaharra eta konkorra. Hura, ordea, polita da eta gizonak maite dute... Zuri ez dizu sekula gizon batek musu eman, neskazahar, itsusi, zitala!...

Belarrondoko baten hots lehorra.

–Sugegorria halakoa! Zoaz, zoaz emagaldtu horren bila.

Amorruez, gelatik kanpora bultzaka atera du, Annek ume ahots dardarkari zorrotzez oihu egiten dion bitartean:

–Gorroto zaitut! Gorroto zaitut!

Bortizki ixten diren ateen danbatekoak, giltzak sarrailan jiratzean egiten duen hotsa. Isiltasuna. Biraderadun organotxo berriro joka hasi da patioan. Anneren gela erabat ilun dago. Hormak leihoarekin egiten duen angeluaren kontra dago, atari batean ahaztuta, euritan utzi duten ume bat bezala. Oso urruti, isiltasun absolutuan, han urruti igarotzen den trenaren txistu hots garbi eta sarkorra entzuten da. Gero, herri galdu bateko geltoki txiki horietako bat. Geltokiko enplegatu batek bultzaka daraman orgatxoaren kurrinka. Fardeleria deskargatzean egiten den zalaparta. Itzal txiki bat –Anne– atzera eta aurrera dabil. Urruntzean, teilatupetik harago joaten da. Gas farola baten sugar samur eta ahulak argitzen ditu neskatoaren soinekoa eta adatsa. Haizeak soingainekoa astintzen dio. Itzultzen den bakoitzean, erlojuari begiratzen dio urduri. Azkenean, kanpaitxoaren dilin hotsa. Trenaren burrunba. Burdinek elkar jotzean egiten duten astrapala. Hor dago trena, gelditu da, une batez egon da sua eta kea dariola. Anne, lasterka, hirugarren klaseko konpartimentu batean sartu da. Itxi dira atea. Abiatu da trena. Errail distiratsuak ozta-ozta ikusten dira gauean. Annek irrikaz begiratzen dio zeruak Parisen parean daukan argitasun gorrinari; sigi-saga dirdaitsu bat; Eiffel dorrea dena argiz betea, gero galdararen txistu hotsa, hasieran sua dariola, baina berehalaxe baretua, urak surtara isurtzean egiten duen hotsa bezala.

Élianeren etxeko atarian, atezainak egoeraren berri eman dio Anneri:

–Ordu honetan ez da sekula etxean egoten, orain Willy’s Bar-en aurkituko duzu, Port-Mahon kalea, 18. Ezin dizut sartzen utzi. Ez didate esan etortzekoa zinenik.

Barrura sartu eta danbateko bat joz itxi du atezaindegiko atea. Anne une batez zalantzan egon da; leher eginda ematen du; kapela erantzi du, oso astuna da eta hura ere nekagarria gertatzen zaio. Horretan, ilunpetik jendarme baten silueta agertu da. Anne izutu egin da eta, norbait atzetik segika datorkion haurtxo txiki bat bezala, espaloian aurrera jarraitu du ibilera unatuaz. Kale hutsean barrena nola urruntzen eta desagertzen den ikusten dugu. Jazz leloa entzuten da berriro, hasieran urruti, motel, gero basati eta zaratatsu. Ke laino lodi bat harrotzen ari da astiro-astiro. Hasierako tabernan gaude berriz ere. Baina goizeko zazpiak dira ia, eta areto txikia mukuru beteta dago.

Gizonak barra aurrean daude taburete altuetan eserita, zurrutean eta oihuka mintzaten. Barreak. Emakume txilioak. Denak batera ari dira hizketan eta barrez. Ez da igartzen zer dioten, berbaro ulergaitz bat besterik ez, eta horrekin nahasian shaker-en zarata, dadoek mahai gainera erortzean egiten duten zarata, musika beltza. Barran dauden gizon mozkor batzuek konpasa markatzen dute beren makilekin. Neskak elkarri bultzaka dabiltza aulkietan. Perlazko idunekoa daukan emakume gaztea, mahai batean aurrerantz erdi etzanda, kokotsa eskuetan bermatzen duela, keinuka ari zaio urrundik amerikal itxurako gizon lodi bati eta hark barrez dihardu makilaren puntan kapela biraraziz eta bere hortz handiak, karratuak, urrez beteak, erakutsiz. Éliane besarkaturik dauka argentinar batek. Goitik beheraino dena larru ilunez estalia ematen du; musuka lepagaina miazkatzen ari zaio eta, hasieran, eskutzar haien artean urrezko ileak nahasiak dituela, emakumeak plazerez zorabiatua dirudi, gero besoak beherantz abiatu dira, astiro, eta Élianeren aurpegia ikusten dugu; urduritasunezko keinu bat igartzen zaio ezpainenetan. Ile xerlo bat trabatu da argentinarren eskumuturreko botoian; Éliane poliki-poliki hura askatzen saiatu da; eskuak dardarka dauzka urduritasunaz eta haren aurpegiak une batez amorrua eta sufrimendua adierazten ditu. Baina eskumuturrean perla potolo distiratsu bat sumatu du eta, bat-batean, burua jaso eta ahoa eskaini dio atzerritarrari. Beltzak abesten darrai. Inork ez dio arretarik jartzen. Txoko batean, barran bermaturik, hogeiren bat urteko mutil bat, arlote samar jantzia, aurpegi bizargabe eta zurbilekoa, zaldi lasterketei buruzko egunkari bar irakurtzen ari da. Orrialdeari begirada bat eman dio eta bizpahiru zaldi izen azpimarratu ditu; gero, zalantzan egon ondoren, burua jaso eta keinu egin dio barmanari barraren gainetik, egunkaria seinalatuz. Biek ahapeka hizketan dihardute. Euren atzean atea zabaldu da poliki-poliki, esku zalantzati batek bultzatuta bezala.

Mutil gaztea eta barmana ate erdi zabaldurantz jiratu dira, biak ere urduritasun espresio berarekin. Azkenean Anne agertu da. Aurpegi betean emandako zaplastako bat bezala beraren aurka oldartu dira ke lainoa, barreak eta musika; aztoraturik dago, aho ertzak dardarka dauzka, une batetik bestera negarrez hastera doan umetxo baten itxura penagarria eskaintzen du. Gero, badirudi egoerari gain hartu diola,

bere onera etorri dela; pauso bat aurrera eman du; barmanak galdetu dio:

–Norbaiten bila, andereño?

–Bernard andrea, mesedez.

Barmanak hotz erantzun dio:

–Nor? Hemen ez dugu izen horretako inor ezagutzen.

Anne kanpora bultzatuz atea ixtera doa, baina neskatxak berriro galdetu du:

–Ordu honetan beti hemen egoten dela esan didate, Willy’s Bar-en. Ez al da hau Willy’s Bar?

–Halaxe da, nor esan duzu?

–Bernard andrea, Éliane Bernard andrea.

Barmana zalantzan geratu da, ahots gozoagoz erantzun du:

–A, bai, badakit... Zaude pixka batean...

Anne bertan geratu da zutik, burua makurtuta. Baina, nahi gabe bada ere, begiradaz barmanari jarraitu dio, ikusten du nola doan jende artean bati bultza besteari bultza Élianeren bila. Bertara iritsita, makurtu denean, Annek mugimendu bortitz bat egin eta hortz artean estutu du ezpaina; ikusten du nola jasotzen duen Élianek, nekatuki, bere buru horaila, nahasia; bien begiradek topo egin dute, une batez tinko mantendu dira elkarri adi-adi begira, ke lainoan zehar, aurpegi hordi eta ergelen gaintetik. Azkenean, Éliane, argentinarraren besoetatik askatu da, zutitu eta badator. Orain biak aurrez aurre daude, elkarri begira jarraitzen dute baina hitzik esan gabe, lotsaturik edo beldurrez baleude bezala. Horretan, Élianek galdetu du:

–Nire bila zenbiltzan?

Annek burua jaso du.

–Bai, andrea.

Eta kostata amaitu du esaldia.

–Anne naiz. Anne Bernard, zure alaba.

Élianek espantu egin du, aurpegi betean zaplastako bat eman baliote bezala. Totelka galdetu du:

–Zer dela eta etorri zara?

–Ihes egin dut –erantzun dio irmo Annek, erronka eta gorrotoa adierazten dituen aurpegieraz.

Élianek eskutik heldu dio, leku hartatik kanpora eramanez nahi du.

–Goazen, Jainkoarren, ez gaitezen hemen geratu...

Annek ez du nahi, arren eskatzen dio:

–Mesedez... utzi pixka batean eserita egoten. Leher eginda nago...
Ez neukan dirurik taxia hartzeko. Gau guztia daramat ibili eta ibili...

Barraren alboan ate txiki bat dago gortina baten atzean erdi disimulaturik. Élianek mugimendu azkar batez errezela alboratu eta barrurantz bultzatu du Anne. Gela huts eta ilun bat da, hainbat besaulki eta ispiluz hornitua. Dagoen argitasun motela, horman esekitako ispilu handi baten alde banatan dauden bonbilla elektrikoek ematen dute. Eseri egin dira. Élianek begi bazterrez begiratzen dio aurpegira alabari, irrikaz. Baina Annek saihestu egiten du begirada, isilik dago. Alboko aretotik gero eta zaratatsuago, gero eta traketsago iristen da musika beltza. Horretan, iskanbila sortu da, barre histerikoak, aiztoekin mahai gainean denek batera eta erritmikoki joz egiten den zarata. É-lia-ne!... É-lia-ne!... Eta bat-batean isiltasuna. Segur aski barmanak isilaraziko zituen. Beltzak, mekano itsu bat balitz bezala, bere musika amerikarra jariatzen jarraitzen du.

Élianek azkenean, ahots izpi batez galdetu du:

–Baina, Anne, zergatik egin duzu hau?

Annek areago makurtu du burua; ez zaio aurpegia ikusten. Eskuak bakarrik, urduri jolasten mahai gainean nolanahi botata dauden postre kutxiloekin. Neska koskorraren eskuak dira, eskolaumearen eskuak, etxeko lanak egiteaz hondatuxeak, hatz erakuslean jostorratz ziztadak igartzen zaizkio, azkazalak hondo-hondotik moztuta dauzka. Élianek, nahi gabe, esku horietan erreparatu du eta, disimuluz, ezkutatu egin ditu bereak, hatz finak, zuriak, alferkeriak eta etengabeko zainketak halako nagitasun aristokratiko batez hornitzen dituztenak. Berriro galdetu du:

–Baina, Anne, Jainkoarren, zergatik egin duzu hau?

Azkenean, Annek erantzun du:

–Oso gaizki nengoen.

Burua jaso eta tinko begiratu dio Élianeri, bat-batean zaharrago bihurtu duen aurpegiera hotz eta gogorrez. Élianek ahapeka:

–Ahal nuen guztia egiten nuen zure alde. Zure izebak zioen pozik bizi zinela.